


Orduko soldata kostu osoa igo egin zen Euskadin

Soldata kostua guztira

Urte bakoitzeko 1. hiruhil. Euroak ordu bakoitzeko




Iturria: INE

INeren lan-kostuei buruzko hiruhilekoko inkestaren arabera, **Euskadin lan egindako ordu bakoitzeko soldata kostua 22,0 eurokoa izan zen 2026ko lehen hiruhilekoan**, urte arteko %10,1eko igoerarekin. . Kostuak sektore guztietan hazi ziren, bereziki industrian (%11,8), neurri handi batean soldata osagai ez-arruntak (aparteko ordainketak edo atzerapenak) bultzatuta.

Aireko trafikoa %9,4 hazi zen maiatzean

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak

Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Iturria: AENA

Aurtengo maiatzean 830.000 bidaiari baino gehiago pasa ziren Euskadiko aireportuetatik. Zifra horrek %9,4ko igoera suposatzen du aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, eta maximo historiko berri bat ezartzen du. Apirileko emaitza onaren ondoren, aire trafikoa hedapen joerak sendo jarraitu du maiatzean.



Autoen matrikulazioak gora egin du Euskadin

Turismoen matrikulazioa Euskadin Urte bakoitzeko urtarriletik maiatzera




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratu berri dituen datuen arabera, **urteko lehen bost hilabeteetan 13.996 auto matrikulatu ziren Euskadin, aurreko urteko aldi berean baino %3,8 gehiago**. Lehen hiruhilekoan nabarmen hazi ondoren, apirilean eta maiatzean matrikulazioak behera egin zuen.

Etxebizitzen salmenta %8,8 hazi zen apirilean

Euskadin saldutako etxebizitzak Urte bakoitzeko apirila



Iturria: INE.

INEk argitaratu dituen datuen arabera, **apirilean Euskadin saldutako etxebizitza kopurua %8,8 hazi zen aurreko urteko hil berarekin alderatuta**. Zehazki, 1.947 etxebizitza saldu ziren. Otsailean gelditu eta martxoan behera egin ondoren, etxebizitzen salmentak gora egin du berriro, eta 2008tik apiril baterako daturik onena lortu du.